

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, SONDIKAKO UDALAREN 2018-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu du Sondikako Udalaren 2018ko ekitaldiko kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren fiskalizazio txostena.

2018ko ekitaldiko **Urteko Kontuei** dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du, nahiz kontularitzako doiketak azaleratu diren; horiek erregistratuz gero, Udalaren Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikina 31 mila euroan murriztuko litzateke. Gainera, Epaitegiak ezin zehaztu izan du Aktibo ez-arrunteko saldoek aktiboaren 2018ko abenduaren 31ko egoera erreala islatzen duten.

HKEEk fiskalizazio-gai izan den Kontu Orokorrak erakusten duen finantza-egoera aztertu du eta eragiketa arruntek sortutako aurrezkoa azpimarratu du, izan ere hobetu egin da hirurtekoan sarrerek gora egitearekin batera eta sarrera arrunten % 9,4 da, inbertsioak finantzatzeko erabilgarri dagoena. 2018ko abenduaren 31n gastu orokorretarako geldikinak hirurtekoko inbertsioak bikoizten ditu.

Halaber, txostenak ondorioztatu du Udalaren kontu-hartzaitzak egindako txostenaren arabera, **2018an aurrekontuaren egonkortasun, zor publiko eta gastuaren araua bete dela.**

Udalak **zuzentasunez bete du** 2018ko ekitaldian ekonomia eta finantza jarduera arautzen duen lege araudia, nahiz unean uneko salbuespenak azaleratu diren **Kontratazioaren** atalean (kontratu bat luzatu da mugaegun-epea gaindituta, espediente bat kontratu txiki modura izapidetu da prozedura ireki sinplifikatu bidez egin beharrean eta beste espediente bat oker sailkatu da).